



Andoaingo Udala

Irailaren 7an, astelehena, irekiko da 18 eta 30 urte bitarteko gazteei etxebizitza alokatzeko laguntzak eskatzeko epea

- **Udalak alokairu errentaren %20tik %50era bitarteko dirulaguntzak emango ditu, gehienez 250 eurokoak, diru-sarrera gordinen arabera.**
- **Alokairuaren prezioa ezin da 750 eurotik gorakoa izan hilean.**
- **Laguntza horiek irailaren 7tik azaroaren 6ra eskatu ahal izango dira.**

Maidier Lainez alkate eta Gizarte Zerbitzuetako presidentek gogorarazi duenez, "Agerikoa da gazteek eta hain gazteak ez direnek zein zailtasun izaten duten independizatzeko orduan, gureak Europa mailan beranduen independizatzen diren gazteetakoak baitira. Zalantzarik gabe, kolektibo horrek etxebizitza eskuratzeko duen zailtasuna da atzerapen horretan eragiten duen faktore bat. Hori dela eta, emantzipatzeko zailtasunak dituzten gazte horiei erantzuteko, are gehiago kontuan hartuta gazte asko ERTE egoeran daudela, COVID-19k eragindako krisiaren ondoren eta etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emateko xedez, laguntza ekonomikoen lerro hau onartu zen maiatzeko osoko bilkuran".

"Bizi-proiektu bati ekiteko, enplegua baino zerbait gehiago behar da: etxebizitza duin eta eskuragarria behar da, 18 eta 30 urte bitarteko gazteek independentzia lortu ahal izateko. Gizarte Zerbitzuetatik, prozesu honetan lagundu nahi dizuegu eta, horregatik, dirulaguntza lerro hau prestatu dugu, ohiko etxebizitzarako etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzeko" azpimarratu du Lainezek.

Alkateak azpimarratu duenez, "Udalak onartu zuen ordenantza ez da akordio politiko baten emaitza soilik, baizik eta gune batetik sortu da, Gizarte eta Etxebizitza Mahaitik, hain zuzen ere. Bertan, Caritas, Fiare eta Stop Kaleratzeak bezalako gizarte-erakundeek ordezkariak dute, eta ordenantza honen proiektuan lagundu dute".

Jarraian, laguntza horiei buruzko informazioan jarriko dut arreta:

Herritar onuradunak:

- Etxebizitza bat partekatzen duten 18 eta 30 urte bitarteko gazteak, baldin eta errentamendu-kontratua bertan bizi den pertsona bakoitzarekin sinatzen bada.
- Eskatzaileek ez dute etxebizitzaren jabe izan behar, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratu badira, betiere titularkidetasunaren ehunekoia jabetzaren % 50 baino handiagoa ez bada eta etxebizitzako partaidetzaren balioa 75.000 € baino handiagoa ez bada.
- Ezingo da familia-loturarik izan errentatzailearen eta errentariaren artean, odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko 2. mailara arte.



Andoaingo Udala

Etxebizitzek bete beharreko baldintzak:

- Alokairuko etxebizitzak Andoainen egon beharko du, eta lizentzia eta bizigarritasun-baldintzak izan beharko ditu.
- Honako hauek ez dira laguntzetan sartuko: babes ofizialeko etxebizitzak, logelen errentamendua, baldin eta logelak soilik egoteko eskubidea sortzen badute; etxebizitza gisa erabilitako lokalak, lokal batetik etxebizitza batera aldatzeko udal-lizentziarik ez badute; eta Bizigune programako alokairuko etxebizitzak.
- Kanpo geratuko dira, halaber, alokairuaren prezioa 750 eurotik gorakoa duten etxebizitzak, urtebete baino gutxiagoko alokairu-kontratuak edo beste udal-sail edo erakunde autonomo batzuen programei atxiki behar zitzaizkien eskatzaileak.

Laguntzen zenbatekoa

Dirulaguntzen zenbatekoa alokairuaren errentaren % 20tik % 50era ezarriko da, gehienez 250 eurora arte, urteko diru-sarrera gordinen arabera:

- 9.000 eta 14.000 euro gordin artean urtean: alokairuaren % 50eko laguntza jaso ahal izango da.
- 14.000,01 eta 17.5000 artean: errentaren % 40.
- 17.500,01 eta 21.500 euro artean: alokairuaren % 30eko laguntza bati.
- 21.500,01 eta 26.000 euro artean: errentaren zenbatekoaren % 20ko diru-laguntzari.

Laguntzak aurkezteko epea eta tokia:

- Laguntza hauek ATARIAn eta www.andoain.eus webgunean aurkeztu ahal izango dira, irailaren 7tik (astelehena) azaroaren 6ra arte.

Alkateak azpimarratu duenez, "Argi genuen legegintzaldi honek gazteriaren aldeko apustua izan behar zuela. Lagundu egin behar diegu, bitartekoak eta baliabideak emanaz. Oinarri horien gainean diseinatu ditugu dirulaguntza hauek, gure gazteek Andoainen bizi-proiektu bat izan dezaten".

Era berean, "Ziur gaude neurri horrekin Andoainen hutsik dagoen etxebizitza bat mobilizatuko dela eta birgaitzea bultzatuko dela, eta horrek susperraldi ekonomikoa ekarriko du COVID-19k eragindako krisiaren ostean", gaineratu du Lainezek.



Andoaingo Udala

EL LUNES 7 DE SEPTIEMBRE SE ABRIRÁ EL PLAZO PARA LA PETICIÓN DE LAS AYUDAS PARA EL ALQUILER DE VIVIENDA PARA JÓVENES ENTRE 18 Y 30 AÑOS

- **El Ayuntamiento concederá subvenciones del 20 al 50% de la renta del alquiler, hasta un máximo de 250 euros, en función de los ingresos brutos anuales.**
- **El precio del alquiler no puede exceder de 750 euros mensuales.**
- **Estas ayudas podrán presentarse en ATARIA y en la página web www.andoain.eus, desde el próximo lunes 7 de septiembre y hasta el 6 de noviembre.**

La alcaldesa y presidenta de los Servicios Sociales, Maider Lainez, ha recordado que "es un hecho evidente la dificultad con la que las y los jóvenes y no tan jóvenes se encuentran a la hora de independizarse, encontrándose entre los europeos que más tarde se independizan. No hay duda que un factor que incide en este retraso es la dificultad que tiene este colectivo para acceder a la vivienda. Por ello, con el objetivo de dar respuesta a esas y esos jóvenes que tienen dificultades para su emancipación, más ahora teniendo en cuenta que muchos están en ERTE, tras la crisis provocada por la COVID-19 y con el objetivo de facilitar el acceso a la vivienda, se aprobó esta línea de ayudas económicas en el pleno de mayo".

"Para emprender un proyecto de vida, se necesita algo más que un empleo: se necesita una vivienda digna y asequible, de forma que nuestras y nuestros jóvenes de entre 18 y 30 años se puedan independizar. Desde los Servicios Sociales, queremos acompañarles en este proceso y, por eso, hemos habilitado esta línea de subvención, que les ayude a pagar el alquiler de la vivienda destinada a su domicilio habitual" ha destacado Lainez.

La alcaldesa ha resaltado que "la ordenanza que aprobó el Ayuntamiento, no es fruto únicamente de un acuerdo político, sino que nace de un espacio, la Mesa Social y de Vivienda, donde están representados entidades sociales de la localidad como Caritas, Fiare y Stop Desahucios, que han contribuido en el proyecto de esta ordenanza".

A continuación, paso a centrarme en la información relativa a estas ayudas:

Personas beneficiarias:

- Las y los jóvenes de entre 18 y 30 años que compartan una vivienda siempre que el contrato de arrendamiento se suscriba con cada una de las personas que residen en ella.
- Las y los solicitantes no deberán ser propietarios de vivienda, salvo que se hayan adquirido por herencia o donación, siempre que el porcentaje de



Andoaingo Udala

cotitularidad no supere el 50% de propiedad y el valor de la participación en la vivienda no supere los 75.000€.

- No podrá haber vinculación familiar entre arrendador y arrendatario hasta el 2º grado de consanguinidad o afinidad.

Requisitos que deben cumplir las viviendas:

- La vivienda en alquiler deberá estar situada en Andoain y contar con la licencia y condiciones de habitabilidad.
- No entrarán en las ayudas las viviendas de protección oficial, el arrendamiento de habitaciones, que únicamente genere derecho de habitación, los locales usados como vivienda sin que cuenten con la licencia municipal de cambio de uso de local a vivienda, ni las viviendas en alquiler del programa Bizigune.
- Quedarán excluidas también las viviendas en las que el precio del alquiler supere los 750 euros, los contratos de alquiler de menos de un año o los solicitantes que deberían haberse acogido a programas de otros departamentos municipales u organismos autónomos.

Cuantía de las ayudas:

El importe de las subvenciones se fijará del 20 al 50% de la renta del alquiler, hasta un máximo de 250 euros, en función de los ingresos brutos anuales:

- Entre 9.000 y 14.000€: un 50% de la renta del alquiler.
- Entre 14.000,01 y 17.500€: un 40% de la renta del alquiler.
- Entre 17.500,01 y 21.500€: un 30% de la renta del alquiler.
- Entre 21.500,01 y 26.000€: un 20% de la renta del alquiler.

Plazo y lugar de presentación de las ayudas:

- Estas ayudas podrán presentarse en ATARIA y en la página web www.andoain.eus, desde el próximo lunes 7 de septiembre y hasta el 6 de noviembre.

La alcaldesa ha subrayado que "teníamos claro que esta legislatura tenía que ser la de la apuesta por la juventud. Tenemos que acompañarles y ayudarles, dándoles medios y recursos. Sobre esas bases, hemos diseñado estas subvenciones para posibilitar que nuestras y nuestros jóvenes tengan un proyecto de vida en Andoain".

Asimismo, "estamos convencidos de que con esta medida se movilizará vivienda que actualmente está vacía en Andoain y se impulsará su rehabilitación, lo que estimulará también la recuperación económica tras la crisis provocada por la COVID-19" ha concluido Lainez.